

- **Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

Gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak hainbat motatakoak dira. Kostu finkoen artean lokala alokatzea, argindarra, ura eta makinak mantentzea daude. Kostu aldagarrien artean elikagaien erosketa, ontziak eta salmentaren arabera aldatzen diren gastuak sartzen dira. Hasieran, inbertsio handia egin behar dugu sukaldeko ekipamenduan eta makronutrientek kalkulatzeko sistema teknologikoan. Gainera, langileen soldatak eta publizitatea kontuan hartu behar dira. Eskala-ekonomiei esker, salmentak handitzean produktuaren kostua txikiagoa izango da. Kostu guzti hauek ondo kontrolatzea funtsezkoa da enpresak ondo funtziona dezan.